



HERRI BIZITZA BATZORDEAREN BILERA

Data: 2022/11/30 **Bilera zenbakia:** 29

Bilera ordua eta lekua: 19:00etan

Parte-hartzaileak: Rosario eta Bixenta (Jubilatuak), Onintza (guraso elkarte), Borja (Arbelaitz) Iker (zinegotzia), Nagore (zinegotzia) eta Nerea (teknikaria)

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Ekintzen balorazio laburra

Oso gaintetik aipatu ditugu ekintza hauek, maiatzetik hona herri bizitza batzordea jai batzordea izan denez, aspaldiko ekintzak ziren eta.

Maiatzak 6, Frontona

Maiatzak 16-20 kirol astea:

M18, herri kirolak hezitzaileek

M20, kirol egokitu saioa

Hitzaldia Aitor Garmendia

M21, mendi irteera

Maiatzak 27, Bua txabal gaztelekuan

Ekainak 3, Nola dago goi mailako hezkuntza- Jon Diez EHU

Herriko festak

Erakusketa: Jende ugari ibili omen da, bide batez egutegiaren argazki lehiaketa egiteko aprobeixatu da eta parte hartzea ona izan da.

Betzaida Urtazaren liburu aurkezpena: 13 bat lagun izan ginen bertan eta oso giro atseginean egin zen aurkezpena.

Euskaraldia: Ez da aparteko ezer egin eta ez da giro berezirik atzeman.

Kantu afaria: Giro eta parte hartze itzela. 52 lagun elkartu ziren eta jai giro ederrean egon ziren goizalde arte.

2. Hurrengo ekintzak herrian

Euskara eguneko talo jana, atzeratu dela aipatu dugu. Urtarrilaren 21ean egingo da eta astebete lehenago ikastaroa egingo da.

Olentzero eta Mari Domingi

Gabonetako ekintzak:

Abenduak 26: Aurpegi margoketa eta jolasak

Abenduak 28: Buztin txuri tailerra

Abenduak 30: Gaztelekuan afari merienda

3. Hitzarmenak

Elkarte bakoitzarekin bilera bat egingo da. Elkarrekin proposatu ditzatela bilera egiteko egunak.

4. Aurrekontuak 2023

Gazteri kontratazioa egingo da, gastua kontuan izan behar da aurrekontuetan.

Kultura lantaldetik igoera eskatu da (3000€)

Elkarteetan partekatu herri mailan bestelako beharrik ikusten den, kontuan izateko.

Elkarte bakoitzak egin behar dituen ekintzak udalari jakinarazi behar dizkio, ekintzen egutegia osatzeko (ekintzak ez pilatzeko eta ez errepikatzeko)

Bi eskaintza iritsi dira udalera:

VITOGRAMA: Pertsona edo elkarte baten biografia egitea da. Elkarrizketa eta irudien bidez. Gero bideo batean jasotzen da. Merkeenak 1200€ (+ BEZ) balio ditu.

Udalak egitea erabakiko balu pertsona bati egin beharrean adibidez mehategien gaiari eutsiko lioke. Horrela testigantzak, irudiak etb jasoz.

FRONTONA MUGIKORRERAKO APLIKAZIOA: Frontona antzerkikoak udalen ekarpena eskatzen ari dira, galdera erantzunen jolas bat sortzeko. Mugikorrean jolasteko izango da eta guztiak Itsasondori buruzko galderak izango dira. Honek 2.600 (+BEZ) balio ditu.

Elkarteetan komentatzea nahi dugu eta ikusten den herrian horrelako zerbait egitea,

5. Besteak

Eskola berriak, sortuko dituen espazio oztopoen aurrean hitz egin dugu. Bilera bat egingo da udala, eskola eta arkitektoa aukera egokienak aztertzeko. Hala ere herritarren iritzia jakin nahi da.

Herri eguna berreskuratu nahi da, baino herriko elkarten inplikazioa eskatzen da.

ETXEKO LANAK	NORK	NOIZKO
<i>Aurrekontuak, elkarteetan galdetu ea zerbait ikusten den herrian hobetzekoa edo hau kontuan izateko.</i>	<i>Guztiok</i>	<i>Abendu amaierarako</i>
<i>Elkarteekin hitzarmenak egiteko bilera data eguna proposatu Nereari.</i>	<i>Guztiok</i>	<i>Abenduak 12tik-23ra</i>
<i>VITOGRAMA edo FRONTONA aplikazioak bai edo ez, komentatu elkarteetan.</i>	<i>Guztiok</i>	<i>Urte amaierarako</i>
<i>Elkarte bakoitzak urtean zehar egingo dituen ekintzen egutegia pasa Nereari</i>	<i>Guztiok</i>	<i>Abenduak 13rako</i>
<i>Eskola berriak eragingo dituen espazioen berrantolaketan herritarren iritzia/ proposamenak galdetu.</i>	<i>Guztiok</i>	<i>Urtarrileko batzorderako</i>
<i>Kulturako galdetegia betetzeko jendeari komentatu.</i>	<i>Guztiok</i>	<i>Abenduak 12rako</i>
<i>Herri eguna guztion artean antolatzea bai edo ez? Elkarteetan galdetu</i>	<i>Guztiok</i>	<i>Urtarrileko batzorderako</i>
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera : Hurrengo batzordea, urtarrilak 11, asteazkena 19:00etan		